



Udal Gobernu taldeak atzo plazaratutako ohar-prentsaren aurrean, Herriarenak kuadrillak honakoa eman nahi du jakitera:

Herriarenak kuadrillari Josune Irabien buru duen Gobernu taldearen jokaera larria eta arduragabea iruditzen zaigu. Kaleratu duen ohar-prentsak, planteatzen dituen helburuak hurbildu beharrean, hau da, jai lasaiak eta istilurik gabekoak, tentsioa areagotu eta foko mediatikoa Amurrioko jaietako txupinazoan jarri besterik ez du egiten. Uste dugu Josunek eta bere taldeak, berriro ere, gure kuadrilla jomugan jarri nahi izan dutela, horrek ekar ditzakeen ondorio larriak kontuan izan gabe.

Sortutako egoera ikusita, Udal Gobernuaren jarrera salatzeko eta herriko jaiak ondo joateko erantzukizuna geure gain hartuta, HERRIARENK jakitera ematen du txupinazo egunean, jaien ordezkariak izendatzeko ekitaldian gure kuadrillak ez duela inolako panpinarik eramango.

Josune Irabienek txupinazoan eta Amurrioko jaietan berriro polizia eta justizia tartean sartzea nahi baldin badu eta, honela, gizarte osoak gainditutzat ematen zuen garaira bueltatu, gurekin ez kontatu, gurekin jai daukazu.

Udal gobernu taldeak, egun bidegabeki kartzelan dauden Alfredo eta Julen gure kuadrillakideen inguruan sortutako polemika ikusita, gogorarazi nahi dugu bai Amurrio herriak, mobilizazioaren bitartez, bai Amurrioko Udalak, zenbait mozio onartuz, zenbaitetan salatu duela egungo bere egoera bidegabekoa eta behin eta berriro eskatu duela aske uztea. Aldarrikapen hauek eta bere oroipenak kaleetan egon behar dute eta, zalantzarik gabe, herriko jaietan ere bai.

Honelakorik berriro gertatuko ez den itxaropenez, amurriar guztiei opa diegu beti bezala edo gehiago goza dezaten Amurrioko jaietan.

**Ondo pasa jaietan!!!
Julen eta Alfredo Herriarenak dira!**



Ante la nota de prensa hecha pública en el día de ayer por el Gobierno Municipal Herriarenak quiere hacer público el siguiente comunicado:

Herriarenak considera grave e irresponsable la actitud del Gobierno Municipal, encabezado por Josune Irabien, al optar por hacer pública una nota que lejos de acercar los objetivos que plantea, unas fiestas tranquilas y sin incidentes, no hace sino incrementar la tensión y situar el foco mediático sobre el chupinazo de comienzo de las Fiestas de Amurrio. Creemos que Josune y su grupo han querido poner una vez más en el punto de mira en nuestra cuadrilla, sin importarle las gravísimas consecuencias que eso puede acarrear.

Viendo la situación generada y como denuncia ante la actitud del Gobierno Municipal y asumiendo la responsabilidad para el buen desarrollo de las Fiestas del Municipio, HERRIARENK quiere hacer público que nuestra cuadrilla no portará ningún tipo de muñeco en los actos de nombramiento de representantes de fiestas del día del txupinazo.

Si lo que Josune Irabien quiere es volver a policializar y judicializar el txupinazo y las fiestas de Amurrio y devolvernos así a tiempos que toda la sociedad creía superados, que con nosotros que no cuente, gurekin jai daukazu!

Ante la polémica suscitada por el Gobierno Municipal en torno a nuestros compañeros de Cuadrilla Alfredo y Julen, actualmente en prisión de manera absolutamente injusta, queremos recordar que tanto la sociedad de Amurrio, mediante la movilización social, como el Ayuntamiento de Amurrio, mediante la aprobación de diversas mociones, han denunciado en numerosas ocasiones la injusticia que supone su actual situación y han solicitado una y otra vez su puesta en libertad. Estas reivindicaciones y su recuerdo deben estar presentes en las calles, y sin lugar a dudas, también en las Fiestas del Municipio.

Con la esperanza de que hechos de este tipo no vuelvan a repetirse, deseamos a la ciudadanía que disfrute, como siempre o más, de las Fiestas de Amurrio.

**Ondo pasa jaietan!!!
Julen eta Alfredo Herriarenak dira!**